


EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ ILJARDUNALDIAK

Durango, 1986-V-30/31

Euskaltzaindiaren adierazpena

Egunotako Jardunaldien ondoren bildurik Euskaltzaindiak honako adierazpen hau egiten du:

a) Nabari da, euskalkien arteko bereizkuntzak hain gogorrak izanik, euskal azentua, axaleko ezberdintasunak gora behera, funtsean batera dabilela eskualderik gehienetan. Badu, beraz, oinarrizko batasuna ahozko mintzabiderako aski dena. Aski dena oraingoz eta osoago bihur daiteke-



Durangoko uriko eskolak.

na luzaro gabe. Azentuari loturik dauden hitzen arteko alde eta bereizkuntzak izan arren —*zúena'* (hark) *zuen(a)'* eta *zúena'* 'zuek duzuená' esateko—, ez dutela ia sekula gaztelaniaz *méndigo* edo ingelesez *component* ebakitzean sortzen diren antzeko nahasteak sortzen.

b) Entzun diren mintzaldien artean baziren era eta maila askotakoak, lagunarteko hizketatik hasi eta hitzaldi landuetaraino. Komeni litzatekeela dirudi, halaz guztiz, euskalki eta eskualde bakoitzeko ebakera ohiturei amore emanaz guztionganako behar den batasuna gordetzea. Ez da hori hiruzpalau egunetan erdiets daitekeen eginbidea: bai, ordea, gerora gabe poliki-poliki egin behar genukeen lana.

c) Hizkuntzaren erabilera okerraren kontrako guzión gatazka sendotu behar da, eskoletan eta komunikabideetan batez ere. Aldi berean hizkuntza biziaren erabilera artatu eta bultzatu behar da, belaunaldiz belaunaldi kalterik gabe iragan dadin. Hizkuntza, zein ere den euskalkia, ongi darabiltenen arteko arrazoi gabeko lotsa nahiz beldurra uxatu behar da ezinbestean.

d) Noraezko da horretarako gure irakaskuntzan ahalegin bereziak egitea, haurtzandegietarik abiatuz, haurrei irakurtzen behar den bezala irakasteko. Beharrezko baita zuzenbidez jokatzeko bi alde erakustea: badirela, alegia, ikus daitezkeen letrak eta ikurrak edo seinaleak; baita ere, ordea, horiek bezain premiazko dena, gogoan eduki behar diren erregela ezinikusiak. *Ez* eta *dakit* berex bata bestearen aldamenean irakurri arren, *eztakit* dela, euskal legeen arabera, irakurri behar dena.

e) Ahozko euskal hizketan eta agiriko komunikabideetan gehienik nabarmentzen den hutsa da, agian, *ere* bezalako hitz azentugabeei, beste hitzen laguntzarik gabe ezin ager daitezkeenei, aitortzen zaien burujabetasuna, euskal ebakerearen kalte gorritan.

f) Ikerlanak ez baztertzeko asmoz, komeni dela iruditzen zaio Euskaltzaindiari azentuaren lekualdatzeaz soilik bereizten diren hitz pareen zenbait zerrenda prestatzea. Nork bere ingurukoak jasotzeaz kanpora, premiazko genuke euskalariek han eta hemen bildurik argitara ditzuztenak biltzea.